


Ekainaren 13ko hauteskundeak Analisia



XOUSE SIMAL

Xabier Arzalluz, Juan Jose Ibarretxe eta Carlos Garaikoetxea kanpainan, mitin batean.



JOXE LACALLE

EHko ordezkariak igogailu batean, hauteskundearen emaitzen balorazioa egin zutenean.

behar Espainiako komunika-
bideak lehia horretan zentra-
tu direla. Izan ere, Europako
hauteskundeetako emaitzak,
besteekin alderatuta, PP eta
PSOEn aldekoak dira. PSO-
Ek adibidez, 24.463 boto
gehiago lortu ditu Europako
hauteskundeetan Hego Eus-
kal Herrian foraletan baino.

99/95: batzuk igo eta besteak jaitsi

1995ko eta 1999ko foru hau-
teskundeak alderatuz gero,
ikusten den lehen gauza da
beti alderdi berak igo direla:
PP, PSE-EE (PSNk pixka bat
behera egin du) eta EH. Alde-
rantziz, EAJ-EAk eta IUk,
behera egin dute herrialde
guztietan, Nafarroako sal-
buespenarekin EAJ-EAren
kasuan (118 boto gehiago bil-
du baitu). PPK salto handiena
Arabian eman du %77,7 igo
baita, Bizkaian %21,8, Gipuz-
koan 16,4 eta Nafarroan
%34,6. PP Espainian oposi-
ziotik Gobernura pasatzeko
emandako jauzia islatzen da
igoera horretan. Ez da azken
hilabeteetako kontua. PSE-
EEren kasuan igoerak txikia-
goak dira, eta nabarmenena
Arabian du, PPK bezala
(UAren kontura).

EHren igoera oso handia
izan da: Araban %59, Biz-
kaian %41,7, Gipuzkoan
40,3 eta Nafarroan 72,2. Igo-
era hori azaltzeko, eszenatoki
aldaketa (Lizarra-Garazi, su-
etena eta abertzaleen arteko
elkarlana) eta EHren sorrera
kontuan hartu behar dira.

IUren kasuan, duela lau
urteko datuei begira oso jai-
tsiera handia izan du (%46,8
Hego Euskal Herri osoan),
baina EAEn kasuan puska-
rik handiena urrian galdu
zuen. UAk, berriz, urrian
bezain beste galdu du orain.

Zer gertatu da EAJ-EA
koalizioarekin? Hau-
xe da joan den igan-
deko hauteskundeetan
erantzuteko zailena den gal-
dera. Zergatik izan da Biz-
kaian eta Gipuzkoan nabar-
menagoa jaitsiera? Herri
guztietan joera berdina
dago edo ez? Zergatik lortu
du EAJ-EAk hiru hautes-
kunde motak alderatuta
boto kopuru txikiarekin udal
hauteskundeetan eta gehie-
na foraletan?

Erantzunen bila herriz
herriko emaitzetara jo
behar da, baina kasuistika
oso handia da eta errazena
oihanean galtzea da. Adibi-
dez, herrialde bakoitzaren
joera ez da berdina barreia-
tzen bere herrietan. Adibi-
dez, Bizkaian 1995 eta
1999ko udal hauteskunde-
ak alderatuta, batez bestea

Nafarroako kasua

Nafarroari dagokionez,
ñabardura batzuk egin behar
dira. Adibidez, UPNk 1995tik
32.251 boto irabazi ditu.
CDNk, ordea, 34.373 boto
galdu ditu. CDNri boto horiek
guztiak (eta 3.706 gehiago)
joan zitzaizkion 1996ko hau-
teskundeetan. Horregatik, ez
dirudi UPNren igoerak esku-
naren indarberritze bat adie-
razten duenik, baizik eta
indarren birbatuketa defen-
tsiboa (batez ere EHren
aurrerapenaren aurrean).
PSNk, bestalde, azken urtee-
tako emaitzik txarrenak lortu
zituen igandean, Urralburu-
ren krisiaren ondoren Ota-

EAJ-EAren portaera ulertzeko funtsezkoa da
hautagaien erakargarritasunari begiratzea

EAJ-EAren jaitsiera %7,3-
koa izan bada ere, zenbait
herrian koalizioak, edo bie-
tako batek edota biek gora
egin dute. Bereizita aurkez-
tu diren tokietan, EAren
kasuan azken urtetako des-
gastea antzematen da, sal-
buespenak baitira 1995tik
hona gora egiten duen
herriak (Bermeo, Derio,
Deba, Billabona).

Koalizioaren portaera
esanguratsuagoa da. Oro
har, honako joera antze-
man daiteke: lehiakide
nagusia EH izan denean,
EAJ-EA koalizioak behera
egin du nabarmen (Herna-
ni, Lezo, Oiartzun, Ordizia,

nok lortu zuen kopurura iris-
tea lortu ez duelako. 1996an
97.951 botorekin burua
altxatu zuen, baina badirudi
Otanoren krisiak eta barne
arazoen, besteak beste, zan-
gotrabatu dutela PSNren
bilakaera.

EAJ-EA koalizioa

EAJ-EAren jaitsiera gehien
nabarmendu dena bada ere,
erlatiboki txikia izan da: due-
la lau urteko emaitzekin
alderatuta, %2,6koa Araban,
%6,7 Bizkaian eta %9 Gipuz-
koan. Nafarroan berdina geldit-
tu da. Urriatik hona, jaitsiera
nabarmenagoa da: %7 Ara-
ban, %13,71 Bizkaian eta

Pasaia, Usurbil, Tolosa,
Audio, Arrasate...) Aitzitik,
lehiakide nagusia PSE-EE
zenen hobeto erantzun du
(adibidez gora egin du Iru-
nen edo Zumarragan), leku
gehienetan motz gelditu
bada ere.

Bestetik, antzematen da
elkarrekin joan diren tokie-
tan beherako joera gehiago-
tan agertzen dela, bereizita
aurkeztutako herrie-
kin alderatuta. Horrek adierazi-
ko luke zatiketaren zauriak
ez daudela behar bezala
itxita eta kostatzen zaiola
jendeari orain arteko lehia-
kide zuzenari botoa ema-
tea.

%10,1 Gipuzkoan. Argi dago
EAJ-EA koalizioak ez duela
balio izan atxikimendu gehia-
go biltzeko, baina galeraren
jatorria aurkitzea zaila baino
zailagoa da.

Egoera berrira joateko,
prozesu orokorraren ikus-
puntutik, igandeko emaitzak
positiboak dira. Datuak
aztertuta (ikus goiko testua),
EAJ-EAren arazoak neurri
handi batean faktore endoge-
noekin lotuta egon daitezke,
eta ez prozesuarekin lotuta.
Bestela ere, EHrekiko alian-
tzaren eta lidergo kuotan
galeraren eraginez logikoa
zen prozesuaren une hone-
tan desgaste bat izatea (batez
ere multzo horren alderik

Azkenik, hiriburu-
etako emaitzak aztertu behar dira.
EAJ-EAK Gasteizen 7.159
boto galdu ditu, Donostian
3.813 boto, eta Bilbon 651
irabazi ditu. Gasteizko
kasuan Jose Angel Cuerda-
ren erakargarritasunaren
falta aipatu beharra dago.
Donostian karisma gutxi-
ko hautagai baten (Enrique
Arana) eta Odon Elorza per-
tsonalistaren arteko lehia
desorekatua eta Bilbon Iña-
ki Azkunaren tiradizoa.
Kontuan hartuta, EAJ-EA
koalizioaren galeraren boto
kopururik handiena bi hiri-
burutan eta zenbait herri
handitan (Eibar, Erandio,
Audio, Amurrio, Getxo,
Arrigorriaga, Andoain, Arra-
sate...) faktore pertsonala
erabakigarria izan dela esan
daiteke botoaren norabidea
azaltzerakoan.

kontserbadoreen) eta
hau egotekotan oso txikia
izan da. Prozesuaren ikus-
puntutik, EHren emaitza
onak positiboak dira, katali-
zadorea indarturik atera bai-
ta. Oro har, esan daiteke hai-
zearen norabidea ez dela
aldu, toki beretik jotzen
duela, Lizarra-Garazitik.
Alderik negatiboena, agian,
itunen matematika da. Ara-
ban, adibidez, Lizarra-Gara-
zik aurrera egin arren ez da
iritsi Batzar Nagusien
gehiengoa eskuratzera. Itu-
nen norabidea ikusteko
dago. Ateak irekita daude.

Pello Urzelai
DONOSTIA